

Ezin duzu imajinatu motxila
batean sar daitekeena...

 **liburubila**




...gurean honakoa, hain zuzen ere:



922.566
LIBURUAK



18.021
EBOOKAK



66.611
BIDEOAK



13.854
ONLINE
ZINEMA



76.199
ENTZUNEZKOAK



11.003
DIGITALIZATUTAKO
DOKUMENTUAK



12.882
EGUNKARIAK ETA
ALDIZKARIAK



4.579
DOKUMENTU
GRAFIKOAK



4.579
ORDENAGAILU-
FITXATEGIAK

Zer da Liburubila?

Aldi berean, lau datu-baseen edukiak aztertzeko aukera ematen dizun bilatzailea da:

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko katalogoa • eLiburutegia • eFilm • Liburuklik

Nola funtzionatzen du Liburubilak?

Bilaketa terminoak Liburubilan sartu ondoren sistemak egindako bilaketa-rekin bat egiten duten epuben, bideoen, filmeen, fitxategien, irudien, audioen, artikuluen, etab. -en zerrenda itzultzen du. Bilaketa aurkitu nahi dugun fitxategi motara mugatu daiteke (filmak, musika, liburu digitalak...), eta liburutegi zehatz batera ere.

Liburubila erabiltzeko beharrezkoa da identifikatzea?

Bilaketak egiteko ez, baina erreserbak egiteko edota gure maileguak ikusteko edo berritzeko bai. Gainera, identifikatuz gero, aukera dugu gure bilaketen historiala, lanik gustukoena edo irakurri nahi ditugun liburuen zerrenda ikusteko.

Nola erregistratu naiteke Liburubilan?

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) txartela besterik ez duzu behar. Horrekin, erabiltzailea eta pasahitza emango dizkizugu, Sareko liburutegi zerbitzu guztietara sartzeko aukera izan dezazun.

Zertarako balio du Liburubilako motxilak?

Motxilan bilaketen emaitza gorde dezakegu. Saioan identifikatuta bagaude, emaitza horiek berreskuratu ahal izango ditugu beti.

Filmak online ikus daitezke?

Liburubilaren bidez eFilm sartzeko aukera izango duzu filmak online ikusteko. Horretaz gain, eLiburutegian ere sar zaitezke ebook bat maileguan hartzeko. Edo Sareko edozein liburutegitan DVD edo disko bat maileguan eska dezakezu ere.

www.liburubila.euskadi.eus

Imajinatu dezakezuna baino askoz gehiago.



Ezin duzu imajinatu motxila
batean sar daitekeena...

 **liburubila**

